

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 33/2021 Foru dekretua, uztailaren 20koa. Onespena ematea AMAS Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren prestazio ekonomikoen Arabako gehieneko zenbatekoak eguneratzeari

2018ko otsailaren 12an, ALHAOn argitaratu zen Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 5/2018 Foru Dekretua, zeinaren bidez onesten baita Araban AMAS Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren prestazio ekonomikoen Arabako gehieneko zenbatekoak eguneratzea: familia ingurunean zaintzeko prestazio ekonomikoa eta zaintzaile ez-profesionalentzako laguntzak, laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa eta zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa. Foru dekretu horren eranskinean prestazioen gehieneko zenbatekoa zehazten da.

Beste araudi bat izapidetu nahi da, ondoz ondoko hiru urtean Arabako Lurralde Historikoan errolatuta egon direla egiaztatzen duten pertsonen laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoak eguneratzeko.

Arabak, Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren prestazio ekonomikoak arautzen dituen Diputatuen Kontseiluaren abuztuaren 1eko 39/2014 Foru Dekretuaren 26. artikulua xedatzen du gehieneko zenbatekoak Foru Gobernu Kontseiluaren foru dekretu bidez onetsiko direla.

Horregatik, Arabako Gizarte Politiken Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hona hau

XEDATZEN DUT

Lehenengo artikulua. Xedea

Arabak, AMAS Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemaren prestazio ekonomikoen gehieneko zenbatekoak eguneratzea: ondoz ondoko hiru urtean Arabako Lurralde Historikoan errolatuta egon direla egiaztatzen duten pertsonen laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa, Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 30eko 5/2018 Foru Dekretuaren eranskinean arautua, foru dekretu honen eranskinean zehaztutako zenbatekoen arabera.

XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabetu egiten da 5/2018 Foru Dekretuaren eranskina, foru dekretu hau indarrean sartzen denetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAN LEHENENGOA. INDARREAN SARTZEA

Foru Dekretu hau 2021eko abuztuaren 1ean sartuko da indarrean, eta indarrean sartzen denean prestazioa jasotzen duten pertsona guztiei aplikatuko zaie, bai eta eskaera berriei ere, gerora haien ahalmen ekonomikoa indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera berrikusteko aukera eragotzi gabe.

AZKEN XEDAPENETAN BIGARRENA. ARGITARATZEA

Araudi berri hau ALHAOn argitaratzeko agindu da.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko uztailaren 20a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken Saileko foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

ERANSKINA

MENDEZASUNA BALIOESTEKO BAREMOA, GRADUAK ETA PUNTUAK	ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA	ZERBITZUARI LOTUTAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA, ONDOZ ONDOKO HIRU URTEAN ALH-N ERROLDATUTA DAUDELA EGIAZTATZEN DUTENENTZAT, BALDIN ETA EGOITZAKO ARRETA ZERBITZU IRAUNKORRA FINANTZATZEN BADA	FAMILIA INGURUAN ZAINTEKO PRESTAZIO EKONOMIKOA	ONDOZ ONDOKO HIRU URTEAN ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN ERROLDATUTA DAUDELA EGIAZTATZEN DUTENAK FAMILIA INGURUAN ZAINTEKO PRESTAZIO EKONOMIKOA	LAGUNTZA PERTSONALERAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA	ONDOZ ONDOKO HIRU URTEAN ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAN ERROLDATUTA EGON DIRELA EGIAZTATZEN DUTENENTZAKO LAGUNTZA PERTSONALERAKO PRESTAZIO EKONOMIKOA						
							EURO/HIL					
							ZENBATEKOA	ZENBATEKOA	ZENBATEKOA	ZENBATEKOA	ZENBATEKOA	ZENBATEKOA
III. gradua	715,07	1.030,00	387,64	482,00	715,07	950,07						
II. gradua	426,12	829,00	268,79	329,00	426,12	581,12						
I. gradua	300,00	523,00	153,00	185,00	300,00	399,00						